

OSOKO BILKURA

2019ko ekainaren 12ko ezohiko bilera

BERTARATUTAKOAK:

JARDUNEKO ALKATE-UDALBURUA
M^a CARMEN URBIETA GONZÁLEZ

JARDUNEKO ZINEGOTZIAK

Euzko Abertzaleak

IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA
ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO
FCO. JAVIER ATXA ARRIZABALAGA
XABIER LOSANTOS OMAR
ARANTXA DIAZ DE JUNGITU TUDANKA
DIONI ANDRES BLANCO
IDOIA BLASCO CUEVA

Esnatu Leioa

RUBEN BELANDIA FRADEJAS
M^a DOLORES LOZANO MUÑOZ
JOSE IGNACIO VICENTE MARTÍNEZ

EH-Bildu Leioa:

JOKIN UGARTE EGURROLA
ARITZ TELLITU ZABALA
NAIARA GOIRIENA ZILLONIZ

Euskal Sozialistak:

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES
ENARA DIEZ OYARZUN
ALFONSO LÓPEZ AREVALILLO

Leioako Talde Popularra:

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ
JAZAEL MARTÍNEZ ESTEBAN

EZ DA BERTARATU / EZ DA BERTARATU, ARRAZOIA

AZALDUTA:

IKER AGIRRE BARTZENA
DESIREÉ ORTIZ DE URBINA MARÍN

EUSKARA ITZULTZAILEA

MATTANE URIARTE and.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIA GUTIERREZ and.

IDAZKARIA

CHIARA CAMARÓN PACHECO and.

Leioako Udaletxean, bi mila eta hemeretzi ekainaren hamabiko zazpiak eta hamazortzi minutu direnean, elizate honetako udalaren jarduneko Osoko Bilkura bildu da ezohiko bilera egiteko. **Jarduneko alkate-udalburua den M^a CARMEN URBIETA GONZALEZ andrea** izan da bileraren burua, eta orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran, izatez zein eskubidez Udaltzatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dutenak. Halaber, **idazkari nagusia, CHIARA CAMARÓN PACHECO andrea** bertaratu da. Jarduneko alkate-udalburu andreak aurretik egin die ezohiko bileran parte hartzeko deia, Toki Erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 36. artikuluan, Udal Araudi Organikoaren 82. artikulua araberak aplikatu daitezkeen, xedatutako ondorioetarako, udal berria eratu aurreko saioa baino lehen aurreko aktak onesteari dagokionez.

Aipatutako orduan, lehenengo deialdian, jarduneko udalburuak ekitaldia irekitzat jo du eta, jarraian, ohiko saio honen aztergaien zerrendari heldu zaio:

I.- EBAZPEN-ATALA

1.- HONAKO AKTAK ONESTEA: 2019-04-29ko OHIKO BILKURA; 2019-06-04 EZOHIKO BILKURA

Aipatutako saioko aktak onartzeke zeudela aipatu zen, eta Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion onar zitzan.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Osoko Bilkurak, bilkurara bertaratutako kide guztiek aho batez hala erabaki baitzuten, aipatutako osoko bilkurako aktak onetsi zituen; horrei buruzko oharrik ez zen egin.

EH Bildu Leioa udal taldeko kideek dagozkien dietak ez zutela kobratuko adierazi zuten.

Eta arratsaldeko zazpiak eta hogeirenean, jarduneko Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkari nagusia naizen honek.

OE
JARDUNEKO ALKATEA,

IDAZKARI NAGUSIA